

VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA EUSKARAZ

Batzuetan, argi-izpi bat, ideia xume bat kokatzen da gure espirituan eta harrigarriro hazten, bertan forma eta gorputz hartuz. Batzuetan, elkarrizketa arruntek ematen dute proiektu ederretarako haria. Gero, jakina, landu beharra dago guztia, hartan buru-belarri sartu beharra.

Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa euskarara itzultzeko asmoa ere horrelaxe sortu zen. Uztailaren 16a zen, Karmengo Amaren eguna. Herriko seme apaizak eta karmeldarren adiskide diren beste zenbait apaiz bildu ohi dira 11etako mezarako Markinako Karmenen. Hantxe, sakristian geundela, Santa Teresa Lisieux-koa aipatu genuen. Haren heriotzaren mendeurrena zela-eta, santa honen idazlan guztiak frantsesetik euskarara itzulita argitalpen eder bat egina baikenuen. Esan dezadan bide batez, argitalpen hau hainbaten artean elkarlanean burutu genuela, Iparraldeko zenbait idazle ere tartean zirela, eta elkarrekin eratu genuela bidaia erlijioso-kultural bat Alençon eta Lisieux-era, gure Teresatxoren hiri maiteetara. Horrek hizpidea emanik, 35 urte baino gehiago igaro ondoren, azken Kontzilioko dokumentu osoen itzulpenik ez genuela euskaraz bota zuen gure solaskideak. Autu hau, ezer ez balitz bezala ezarian-ezarian, elkar agurtzen eta mezatarako prestatzen ari ginela izan genuen. Hitz solteak, ongi josi gabeko esaldiak, baina eragina izan zuten guregan. Dirudienez, Lisieux-ko

Santatxoa edo norbait bazebilen gure gogoa berotzen. Arratsaldean solasaldia ia ilunabarra arte luzatu zen. Julen Urkiza eta biok ginen alde batetik eta gure solaskidea, Joan Bizente Gallastegi, bestetik. Baiezkoan geratu ginen, gauza batzuen pentzudan eta beharrezko horiek betez gero, Bilboko elizbarrutiko nagusiek aurrera egiteko noiz aginduko zain.

Liburu honen sarreraren bigarrean zatian, “Argitalpen honez” deritzonean, adierazten dugu zenbaiten artean zegoen kezka Kontzilioko dokumentuak euskarara itzuli gabe zeudelako. Hona hango ataltxo bat hitzez hitz:

“Vatikanoko II. Kontzilioa egin zenez gero (1962-1965) 35 urte igaro ondoren, ez zen oraindik Elizarentzat eta gizadiarentzat hain garrantzitsuak ziren dokumentuen itzulpenik euskaraz. Hutsune horrek kezka sortzen zuen zenbaitengan. *“Euskal baliabideak taldea”* ari zen batez ere gabezia horri erantzun nahirik. Talde hau Bilboko elizbarrutiko sei-zazpi apaiz euskaldunek osatzen dute eta liturgia eta katekesirako euskarazko testuak prestatzea dute helburu. Karmengo Amaren egunean izan zuen asmo honek hasiera: talde horretako kide batzuk Markinako Karmeldarrekin harremanetan jarri ziren. Apaiz hauek, karmeldarrak Kontzilioko dokumentuak itzultzeko eta argitaratzeko prest zeudela ikusirik, serio hitz egin zuten elizbarrutiko ardurdunekin. Horrela sortu zen Markinako Karmeldarrei Kontzilioko dokumentuak euskarara itzultzeko eskaria egitea”.

Hona, gutxi gorabehera, nola sortu zen asmo hau eta nola izan ziren hasierako urrats txiki haiek. Malda zail eta ikusgarria igo ondoren, gogoko izan ohi dugu goitik begirada arin bat egitea; arrastoa galtzeko zorian eta ia ezinean izan ginen uneak gogoratzea, betiere gailurrera iritsi izanak ematen duen pozetik.

Honelako asmo bati ekitean, bihotzaren bultzada beroa eta abiada bizia izan ohi dira eragile, liluratzen gaituzten ametsak gauzatu nahiak adoreturik. Ez da jakiten gero zer datorren, ez eta izango diren zailtasun eta gorabeherak ere. Eta hobe ez jakitea, aurrez kontuak zehatz eta gauzak zorrotz aztertuz gero,

hainbat asmo eder zapuztuko bailirateke hasi orduko. Kontzilioaren beraren hasierak ere horrela izan zirela esango nuke. Joan XXIII.ak Kontzilioaren inaugurazio ospetsuan eginitako hitzaldian hau dio:

Hasieran ia ustekabean otu zitzaigun Kontzilio hau. Geroago, Kardinalen Elkargo Santuaren aurrean iragarri genuen hitz xumeekin, 1959ko urtarrilaren 25eko egun go-goangarri hartan, San Paulo apostolua Jainkoarengana bihurtzearen jaian, Ostiako Bidean dagoen haren basilikan. Horrek zirrara bizia sortu zien bat-batean han ziren guztiei, naturaz gaindiko argi-errainu batek diz-diz egin balu bezala, eta aurpegian eta begietan antzematen zitzairen guztiei barruan gorde ezinik zuten sentipena. Era batera lilurazko itxaropena erne zen mundu osoan eta gizaki guztiak ametsez Kontzilioa noiz hasiko zain jarri ziren¹.

Kontzilio Ekumenikora dei egiten duen konstituzio apostolikoan ere antzeko pentsamendua dakar:

Kontzilioa ospatzearen lehenengo iragarpena, 1959ko urtarrilaren 25ean egin genuen. Hori egin genuenean, espiritua eta eskua dar-dar, hazitxo bat erein bagenu bezala izan zen. Jainkoaren laguntzak eutsita hasi genuen orduan hain abalegin handia eskatzen zuen lan korapilatsu eta larria. Ia hiru urte bete dira harrezkero eta zerutar graziaz hazi txiki hura hazten ikusi dugu eta arbola handi bilakatzen².

Zenbait ideia argi zebiltzan Joan XXIII.aren eta eliz agintarien gogotan eta ideiak zehaztuz eta forma finkoagoak hartuz joan ziren Kontzilioko jardunaldietan barrena:

Joan XXIII.ak Kontziliora dei egin zuenean, eliz bizitza osoaren eguneratzea zen guztien gogotan; aggiornamento hitza entzuten zen, eta horrek nabitaez guztion fedean sakontzea

¹ Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA: dok. osag.2 (1017.or.)

² Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA: dok. osag.1 (1011. or.)

*eta Elizaren jarduera pastoralak garai berrietara egokitzea eskatzen zuen*³.

Lehen dokumentua, Liturgia Santuaren Konstituzioa (*Sacrosanctum Concilium*) aldarrikatu zenerako, helburuak zehatz-mehatz jarrita zeuden. Honela dio konstituzio honen sarrerak:

*Kontzilio santuak asmo hauek ditu: fededunen artean, kristau-bizitza egunez egun sendoago egitea, aldakorrak diren erakundeak gure garaiko premietara hobeki egokitzea, Kristorengan sinesten duten guztien batasunerako ongi datorren oro bultzatzea, eta guztiei Elizaren altzora dei egitera daraman oro indartzea*⁴.

Kontzilioa atzean gelditutako haize-bolada indartsu baten antzera ikusten dute gaur zenbait fededunek. Kontzilio ondorengo urteetan, haren inguruan euskaraz apostolutza-lan handia egin zuen erlijioso gipuzkoar batek, itzulpena egitekotan ginela entzun zuenean, “ez ote da berandutxo” esan zuen; hau da, hizkera arruntean esan ohi denez, urak joanda presa egiteari ekingo bagenio bezala... Ricardo Blazquez Bilboko Gotzainak, berriz, honela dio aurkezpeneko atalean:

“Kontzilioa euskarara itzulia izateak dokumentuak berriro irakurtzea eragin behar luke, ez baitaude inola ere agortuak”⁵.

Ondorengo lerroetan, Kontzilioari egin zitzaion harrerak fase ezberdinak izan dituela esango digu eta horiek azalduko labur-labur. Azkenerantz hau dio:

“Kontzilioko gertaera ezagutu ez zuten belaunaldiek, haren irakaspenetan, haren estilo pastoral eta aholkatzailean, haren jarrera ireki eta konfiantzazkoan, haren espirituz beteriko izaeraren, haren analisi interesgarrietan eta espresio ederretan sumatu ahal izango dute Kontzilioaren bikaintasuna.

³ Ik. ibid. LG sarr. (149.or.)

⁴ Ik. ibid. SC (61. or.)

⁵ Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA: Aurkezpena (26. or.)

Kontzilioko dokumentuek, beren azal eta muinean, azalari ezer kendu gabe eta muina lausotu gabe, beren testu eta historiaren eta Elizaren testuinguruan, beren orientabide nagusietan, gidari preziatua dira hirugarren milurtekoaren hasieran. Historiak esango du Eliza katolikoarentzat Vatikanoko II. Kontzilioak izan duen esanahia⁶.

Bere aburuetan aberatsa eta ziurra den Euskal idazle eta irakasle batek Vatikanoko II.ak duen altxor baliotsua azpimarratu zidan biok izan genuen elkarrizketa arin batean. Azken garaietan gure artean izan den atzerakada geldiarazteko berebizikoa izan daitekeela, baina indar faktikoak eta interesak zeudela tartean, zioen, hura oztopatzen eta haren ahalmen berritzailea loarazten...

Bere ohiko lanetan urtebeterako geldialdia eginik, teologian bere burua janzten eta lehenago ikasia gaurkotzen izan den batek, bere irakasleetako baten iritzia aipatuz, zioen, beste kontzilio bat egingo balitz, Vatikanoko II.aren doktrina aplikatzeko izan beharko lukeela, han printzipio bikainak baitaude oraindik gauzatu gabe.

Vatikanoko II.a euskaraz

Bilboko gotzainak, argitalpen hau dela bide, euskaldun askok Vatikanoko II.a berriro irakurri eta erabiliko dutelako ustea agertzen du. "Kontzilioa euskarara itzulia izateak dokumentuak berriro irakurtzea eragin behar luke" dio gorago aipatutako testuan eta azkenerantz hau gaineratzen du:

"Itzulpen honek gure elizbarrutiei zerbitzu bikaina eskainiko diela uste dut. Itzulpenak lan neketsua eskatu du adierazpide teologiko egokienak aurkitzeko, bai edukiaren aldetik eta bai hizkuntzaren aldetik, eta horrek guztiorrek eragina izango du Elizaren barruko harremanetan. Itzulpen honek mesede egingo dio euskarari eta kristau-kontzeptuak formulatzeko lagungarri gertatuko da; honela, biak, hizkuntza eta

⁶ Ik. ibid. (26-27 or.)

kristau-adierazpidea, aberastu egingo dira eta bien arteko barne-lotura sendotuko.

Latinetik euskarara eginiko Kontzilioko dokumentuen itzulpen honek asko lagunduko dio Elizari bere eginkizuna betetzen, Eliza Mendekostez gero hizkuntza guztietan mintzatzen baita⁷.

Gurea bezalako gutxiengoaren hizkuntzek ere Elizaren Mendekosteko bilkuran partaide izan beharko lukete, hango gogo batezko helburuan baina askotariko hizkuntzen lehian eta ahaleaginean esku hartu beharko lukete. Kristok apostoluei emandako agindu hura, hau da, “*zoazte mundu guztian zehar eta hots egin Berri Ona izaki guztiei*” (Mk 16, 15), misioetarako dei bezala ulertu izan da maiz, baina, berez, Kristoren dei hori zabalagoa da; nik bete-beteaz ezarriko nieke gutxiengoaren hizkuntza eta kulturei ere. Gehiengoaren hizkuntzarekikoa eginenez gero, ez dagoela beste betebeharririk uste dute batzuek, erdara (gaztelania nahiz frantsesa) guztiek ulertzen baitute. Baina ez da ulertze kontua soilik, eskubide kontua baizik. Gutxiengo hizkuntzetako kristauek eskubide osoa dute Kristoren mezua bere hizkuntzan jasotzeko, *hots egin Berri Ona izaki guztiei* dioenean, euskaldunok ere izaki horien artean baikaude. Dokumentu osagarrietako 9.ean hau dio Kristoren agindu hau betetzeaz: “Batzar Santu honi [Kontzilioari] dagokio, beste eginkizun batzuen artean, Ebanjelioaren zabaltze eragingarriago eta hedatuagoa egiteko bide berriak atontzea, bitarteko berriak aurkitzea, indar berriak bizkortzea”. Kristoren Berri Ona, guztientzat bat eta bera izan arren, hura agertzeko bideak askotarikoak dira eta Kontzilioan behin eta berriro aipatzen da herrien izaera, hizkuntza eta ohituretara egokitu beharra. Esaterako, Elizaren misio-ekintzari buruzko dekretuan:

Ebanjelioaren zabalkundea hasi zen predikuaeren bidez eta, azkenik, aurre-iruditan agertu zen herrien batasuna fedea-

⁷ Ik. ibid. (27 or.)

ren katolikotasunean Itun Berriko Elizaren bidez, hizkuntza guztietan mintzatzen, hizkuntza guztiak ulertzen eta hartzen baititu maitasunean, eta horrela Babelgo sakabarnatzea gainditzen baitu⁸.

Atzerriko herrialde batera joan behar duen orok, oso aintzat izan bitza haien ondarea, hizkuntzak eta obiturak⁹.

Bestalde, ikas bitzate hizkuntzak, erraztasunez eta dotore erabiltzeko eran, horrela, gizon-emakumeen gogo eta bibotzetara iristeko bidea errazago aurki dezaten¹⁰.

Hutsuneak hutsune, Kontzilioa amaitu zenez gero, ahalegin handia egin zen euskarazko erlijio-liburuak argitaratzen. Teologiako eta doktrinazko liburuak baino gehiago, eliz liburuak, liturgian edo elizkizunetan eta sakramentuak ematerakotan erabiltzekoak, eliz musika eta kantu-liburuak ahaztu gabe. Izan ere, liturgia herriari bere hizkuntzan eman beharrak eragin zien hainbat itzultzaile eta idazleri guztiz premiazkoak ziren lan horiek burutzer. Alde honetatik, lan handia egin zuen *Jaunaren Deia* aldizkariak eta orain ere euskaraz mintzatzen den Elizari zerbitzu bikaina eginez jarraitzen dute Lazkaoko Beneditarrek eta Donostiako Liturgi Idazkaritzak *Mintzo eta Kantu* argitalpenaren bidez. Baina bestelako lanak ere egin dira: Onarpen eta hedadura handiko Bibliaren itzulpenak. Guztien artean, *Elizen arteko Biblia* aipatu beharko genuke, euskalki mailan Jaime Kerexetaren Bibliak duen garrantziaz ahaztu gabe. Gainera, teologia, biografia eta Elizaren historia landu duten hainbat argitalpen agertu dira; hauek aipatuko nituzke, besteak beste, esanguratsuenak bezala: *Kristau Bidea* (Holandako Kristau Ikasbidea), *Teresa Lisieux-koaren Idazlan Guztiak*, *Asisko Frantzisko Asisko Klara*, *Elizaren Historia Euskal Herrian*, Bizente Latiegik idatzitako Elizaren historiako liburuak, azken urteotan burutu diren kristologiako zenbait

⁸ Ik. VATIKANOKO II. KONTZILIO EKUMENIKOA: AG 4 (679. or.)

⁹ Ik. AG 26 (729. or.)

¹⁰ Ik. ibid. (731. or.)

obra eta Deustuko Unibertsitateak argitaratzen dituen *Erljio Kulturaren Bildumako* liburuak.

Euskarazko jantzia

Mendekosteko bilkurarako jantzi berria, euskarazkoa. Baina diseinua latinarena zen; jatorrizko molde horretatik ezin izango ginen asko aldendu. Dena dela, latinetik euskarara itzultzen jardun arren, lagungarri izan ditugu inguruko erdarak. Latinak eta euskarak elkarrekin ahaidetasunik ez dute. Horregatik, zailtasunak ugari izan behar jatorrizkoa desitxuratu gabe, euskarazko jantzia, neurri-neurrikoa eta dotorea egiteko Vatikanoko II.ari. Hori genuen xedea, baina badakigu bete-betean hori lortzea oso zail dena. Hein handi batean lortu badugu, pozik!

Nondik datoz zailtasunak? Lexikotik haino gehiago, latinezko testu originalaren esaldi luze eta korapilatsuetatik. Baina guztia zen kontuz hartzekoa. Buruan sarturik genuen, itzulpen hau erreferentzia izan daitekeela, nolabait, ez erlijio-gairako soilik, baita Kontzilioak hartzen dituen gai zabalagoetarako ere. Horregatik, iritzi-emaileen zuzenketak jaso genituenez gero batez ere, zorrozkiago ekin genion originalari hurbilagotik lotzeari eta lexikoa finkatzeari. Honek ez du esan nahi, adibidez, lexikoa lotu-loturik erabili behar denik: latinezko halako hitzarentzat beti halako hitza euskaraz... Iritzi-emaileen artean, bazen horrelako lotura eskatzen zuenik ere; Luis Arostegik, pixka bat geroago Karmeldarren Jeneral hautatua izango zenak, eman zigun horretan burubide baliotsua eta hura jarraitzen saiatu gara. Teologiako terminoak bai finkatu beharrekoak direla, baina gainerakoetan, latinak ere sinonimoetara jotzen duela, batean bata eta bestean bestea erabiliz. Beraz, lexikoa eta beste adierazpide eta esamoldeak finkatzea kontuan hartzekoa da, baina ez hain zorrozki teologiako terminoak ez direnean. Hala ere, batzuk eta besteak bereiztea ez da beti erraza... Itzulpenean aurrera egin ahala, eginez-eginez joan gara, hizkuntzaren erabileran trebatuz eta irizpideak zehaztuz.

Zenbait zalantza

Bibliako aipamenekin izan genituen lehenbiziko zalantzak. *Elizen arteko Biblia*-tik (EAB) egin behar zirela uste genuen, baina jatorrizko bertsiotan Vatikanoko II.aren aipamenak latinezko Vulgata itzulpena erabiltzen dute eta, bat ez datozenetan, egokitzen eta ukituak egiten aritu ginen. Iritzi-emaileek ez zuten onartu jokaera hau eta EABtik egin behar zirela aipamenak zioten ia aho batez. Hala egin dugu, baina ez zen gauza erraza, goiko lerroetan esandakoaz gainera, dokumentuaren testuinguruan ongi sartu eta txertatu beharra zegoelako zenbait kasutan.

Latinean eta inguruko erdaretan ongi finkaturiko sintagmak daude, esaterako, “*oeconomia gratiae*” (economía de la gracia). Hasieran, ezbaian izan ginen kasu honetan euskaraz *ekonomia* erabiltzeari gogor samar iritzita... Ordezko gisa (*graziaren*) *ku-deaketa, gobernua, banaketa, zerbitzua*... otu zitzaizkigun. Azkenez, hizkuntzari hainbeste debeku ezartzea ez dela egoki eta, *graziaren ekonomia* onartzera jo genuen.

Batzuetan “*Sacrosanctum Concilium*” dator eta beste batzuetan “*Sacrosancta Synodus*”. Gaztelaniazko lehenengo argitalpenetan biak itzultzen dituzte berdin: “*Sacrosanto Concilio*”; baina B.A.C.eko 1993ko argitalpenak latinez dagoen bezala itzultzen du: “*Sacrosanctum Concilium*”=Sacrosanto Concilio; eta “*Sacrosancta Synodus*”=Sacrosanto Sínodo. Euskarara ere hala itzuli ditugu: *Kontzilio santua* lehenengoa eta *Sinodo santua* bigarrena. Hasieran, “*Sacrosancta Synodus*” *Batzar santua* itzuli genuen, baina zuzentzaileek ia aho batez eskatu digute *Sinodo* jartzeko.

Noiz itzuli *santu* eta noiz *sakratu* ez da beti argi ikusten. Badakigu ez direla erabat sinonimoak. Ukitu ezinekoa, errespetu handia zor zaiona eta antzeko zerbait adierazi nahi denean, *sakratu* hitza erabiltzen saiatu gara; gainerakoetan *santu*... Kontzilioa adierazteko “*sacrosanctum*” dator jatorrizkoan, baina *santu* itzultzen dugu eta ez *sakrosantu*.

Lekukotasuna eta *testigantza*... biak agertzen dira. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan *testigu* eta *testigantza* formei *Heg.* jartzen die, Hegoaldeko formak direla, alboan *lekuko* eta *lekukotasuna* jarriz; hau da, euskara baturako hauek egokiagoak direla atera behar da hortik...(?). Kasu batzuetan, Hegoaldekook behintzat, indar handiagoa hartzen diogu *testigantza* hitzari *lekukotasunari* baino; esaterako, martiriarena adierazteko nahiago nuke *testigantza lekukotasuna* baino...

Sarri-sarri agertzen dena da “ministerium” hitza, “ministerium verbi” etab. Zalantzak izan ditugu, baina gehienetan hitz horrek duen karga eta esanahi markatua dela-eta, *ministerio* itzuli dugu euskarara eta kasu banaka batzuetan *zerbitzu*...


“Minister” gaztelaniaz “ministro” euskarara *ministro* ala *zerbitzari* itzuli, ez geneukan garbi; esaterako: “virtutem peculiarium ministri Christi” *Kristoren ministroaren bertute berezia* ala *Kristoren zerbitzariaren bertute berezia?* Sakramentuetan esku hartzen duenari buruz hitz egitean, *ministro, ministro sakratua* (...).

Latinezko “oboedientia”, erlijiosoen hiru botoetarikoa denean, *menpetasuna* itzuli dugu, adiera horretan erabilerak hala agintzen duela uste izan dugulako; gainerakoetan *obedientzia*.

Latinezko “comunitas” hitza, *komunitate, elkarte*. Bata eta bestea bereizteko zailtasunak. Biak erabili ditugu; bereizten saiatu gara, baina ez dakit asmatu dugun; *elkarte* “asociación”, “sociedad” adierazi behar denean ere erabili dugu eta “collegium” itzultzeko *elkargo*...

“Homo”, esanahi orokorra duenean, *gizaki* itzuli dugu, beste batzuetan *gizon-emakumeak* ere bai, baina ez dut argi ikusten noiz bata eta noiz bestea. Sinonimo hutsak dira eta estilo gorabehera da guztia, ala bereizi beharrekoak...?

“Communio” *elkartasun* itzuli dugu, baina zenbait testuingurutan *komunio* terminoa darabilgu, teologo baten iritzia jarraituz, esaterako “Lumen Gentium” dokumentuari eransten



കേരളത്തിലെ
നവോത്ഥാനം

zaion aurretiko ohar argigarrian eta “*communio hierarchica*” esan nahi duenean. Hona Elizari buruzko Konstituzio dogmatikotik hartutako adibide batzuk: *Hauek, bala ere, beren izaerak eskatzen duenez, ezin daitezke bete gotzain-elkargoaren Buruarekin eta beste kideekin* komunio hierarkikoan *iraun ezik* (LG 21, 197). *Horregatik, beren-beregi esaten da, beharrezko dela komunio hierarkikoa izatea Elizaren Buruarekin eta kideekin. Komunioa ideia oso estimatua izan zen antzina-ko Elizan (eta gaur egun ere hala da, batez ere Ekialdean)* (LG Ohar argigarria, 287).

“*Romanus Pontifex*”, *Erromako Gotzaina* itzuli dugu eta “*Summus Pontifex*” eta “*Papa*”, *Aita Santua*. Hasieran *Aita Santua* jartzen genuen “*Romanus Pontifex*” ere; iritzi-emailetako batek zorrotz agintzen du *Erromako Pontifizea* jartzeko. Beste iritzi-emaile batek, ordea, inola ere ezin duela irentsi hori adierazi zigun; honek *Erromako Gotzaina* zuen gogoko. “Zenbat buru, hainbat aburu”...

“*Sedes Apostolica*”, “*Sedes Romana*” eta “*Sedes Sancta*” ageri dira latinez. Euskarara, *Aulki Apostolikoa*, *Erromako Aulkia* eta *Aulki Santua* itzuli ditugu hurrenez hurren. Hasieran *Aulki Santua* erabiltzen genuen soilik, baina iritzi-emaileen iradokizunak jaso ondoren, bereiztea erabaki genuen.

“*Instauratio ordinis temporalis*”, “*res temporales ab intra animare*” eta antzeko formak datoz latinez. Euskaraz *mundu bonetako ordenamendu osoa eraberritzea / mundu bonetako gauzen ordenamendua gogo baketsuz ezartzea / mundu bonetako ordenamendua kristau-espirituz bizkortzea* etab. Itzultzen ditugu testuinguruen arabera.

“*Signa temporum*” era askotara itzul zitekeen: *garaien / aldien zantzuak / seinaleak / ezaugarriak*... “*Zantzuak*” Bizkaiko apaizentzat ez zen hain gogoko eta adiera horretan nahiko ezezagun egiten zitzairen eta azkenez, *aldien ezaugarriak* jarri genuen.

“Communicatio in sacris”, *gauza sakratuekiko barremana* darabilgu (“gauza sakratuekiko erkidegoa” ere proposatu du norbaitek).

Latinezko “pietas” *debozioa* itzultzen dugu eskuarki, baina testuinguru batzuetan euskaraz ez du zerikusirik debozioarekin eta ez da *deboziazko egintzak* esaten, *errukizko egintzak* baizik.

“Caritas” eta “amor” testuinguru batzuetan erraz da bereizten; beste batzuetan, sinonimo hutsak direla dirudi. Iritzi-emai-le batek, latinez “caritas” datorren guztian, “karitate” itzultzeko eskatzen zuen; beste batek, ordea, “karitate” hitza kendu eta “maitasun” jartzeko eskatzen... Honetan ere, “zenbat buru, hainbat aburu”.

“Episcopus” *apezpiku* erabili dugu, baina *Erromako Gotzaina* eta hitz-elkarketetan ere, “gotzain”, esaterako: *gotzain-batzarra* (“conferencia episcopal”), *gotzain-elkargoa* (“colegio episcopal”).

“Jesus Christus” izenaren idazkera, orain arte, loturik idaztekoa zen gure usadioa, baina orain, Euskaltzaindiari jarraituz, *Jesu Kristo* idazten dugu.

“Romae, apud S. Petrum,...”, *Erroman, San Pedrorenean* jarri dugu; batzuek beste forma hauek proposatu zituzten: *San Pedron, San Pedroren ondoan...* Hasieratik hura otu zitzaigun, eta bere hartan eutsi diogu.

“Sacra Scriptura” *Eskritura Santua* darabilgu, baina originalean pluralean datorrenean, *Liburu Santuak, Liburu Santuetan...* itzultzen dugu.

Latinezko “utpote”, “tanquam” eta antzekoak itzultzeko *bezala* erabiltzean, erdarakada egiteko arriskua dago; horregatik, ... *den aldetik, denez* eta abar erabili ditugu. *Bezala* gehiegi erabiltzeko arriskua saihesten ahalegindu gara. Adibidez, Liturgia Santuaren Konstituzioan (SC 5): *bere Semea bidali zuen, behartsuei Berri Ona iragartzera eta bihotz hautsiak*

sendatzera, gorputz eta arimen sendagile, Jainkoaren eta gizakien bitarteko. (“gorputz eta arimen sendagile” bezala eta Jainkoaren eta gizakien bitarteko proposatu zuen batek, baina hor latinez “*medicum carnalem eta spiritualem*”, “*Mediatorem Dei eta hominum*” dator... ez “*tanquam*” ez antzekorik).

Iritzi-emaileengandik heldu zaizkigun aholkurik gehienak arrazoizkoak izan dira, baina banaka batzuk ez ditugu onartu; esaterako *solidarritza*, gaizki sortutako forma delako; horren ordez, *elkartasuna* edo *solidaritatea* erabiltzen ditugu. Lehenbizikoa nahiago genuen, baina “*communio*” terminoaren ordain gisa maiz ageri dena da; horregatik, latinezko “*solidarietas*” itzultzeko *elkartasun* hitzaz gain, *solidaritate* ere erabili dugu. *Ekimen* hitza ez dugu erabiltzen, *ekinbide* baizik, *ekimena* pertsonaren ahalmena adierazten duelako eta ez haren ekintza. “Sustatu” ere oso gutxi darabilgu; *bultzatu*, *eragin* darabilgu gehienetan horren ordez, baina ez dugu ezer hitz honen kontra; gure inguru zabal batean *sustatu* hitzak “*izutu*”, “*beldurtu*” esan nahi duela, besterik ez...

Lekukotasuna egin proposatu du norbaitek; esamolde horrek, gure iritziz, ez du tradizioz; gure artean *lekukotasuna* edo *testigantza eman* esaten da eta Iparraldean *lekukotasuna errendatu* ere bai.

Latinezko “*cultus*” adierazteko *gurtza* jarri genuen hasieran; *kultua* jartzeko eskatu dute batzuek eta hala egin dugu, *gurtza* latinezko “*adoratio*”ren ordain gisa utziz.

Latinezko “*praesidere*” itzultzeko, testu berrietan nahiko zabal dabilen *buru egin* proposatu dute, *buru izan* formaren ordez. Hasieran uste genuen *buru egin* berria zela adiera horretan eta “*aurre egin*”, “*kontra egin*” adierazten zuela soilik tradizioan, baina ez da hala; “*praesidere*” adiera ere badu; Mogel, Lardizabal, Urruzuno, Kirikiño eta abarrek badarabilte behintzat.

Komunikabideak ala *bedabideak* erabili, ez genuen argi ikusten. Arlo horretan eskarmentu handia eta euskararen era-

bileran maisu ziurak diren bi kazetariri eskatu genien iritzia. Berentzat “komunikabideak” deitzea normalagoa dela erantzun ziguten; haietako batek zioen, gazteagoek nahiago dutela “hedabideak” erabiltzea. Beraz, gehienetan, *komunikabideak* dabilgu. Testuinguruan “medios de difusión” zetorrenean *hedabideak* erabili dugu, baina dokumentuaren izenburuan *Gizarteko Komunikabideei buruzko dekretua* (IM).

“Educatio” eta “formatio” bereizi beharra izan dugu, batez ere gaien aurkibidea burutzerakoan. Lehenbizikoa adierazteko euskaraz ugaritasun nahasgarria dugula esango nuke: *beziara, bezkuntza, beziketa*. *Heziara* hautatu dugu. Bigarrenaren ordaintzat, berriz, *formazioa, prestaera* ere noizbait erabili arren.

GS 82 “quo pax viriliter aedificatur”: *honekin bakea sendo eraikitzen baita*. Hitzez hitz *honekin bakea gizonki eraikitzen baita*. Bidezko denez, gai horretaz dagoen sentiberatasuna kontuan izanik, hasieratik izan genuen “viriliter” hori jatorrikotik urrundu gabe baina era berean gaur eguneko sentiberatasunari erantzunez itzultzeko ardura. Iritzia eskatzean, era bateko nahiz besteko erantzunak jaso genituen, baina “viriliter” irudizko zentzuan dagoela hor eta ez dagoela sexuari erreferentzia egin beharrik zioenari jarraitu diogu; beraz, ez dugu *gizonki* itzuli, *sendo* baizik...

Maiuskula eta minuskula arazoa azken-azkena arte izan dugu. Latinezko testuan itzulpenetan baino maiuskula gehiago dator... *Kontzilio Ekumeniko*, izen propiotzat harturik maiuskulaz idazten dugu. *Kontzilio Ekumeniko santua*. Originalean izena eta ondorengo izenondo guztiak maiuskulaz datoz. Festaburuen izenak ez direnean minuskulaz idazten ditugu *piztuera, igokundea, nekaldia*. Originalean maiuskulaz agertzen dira eskuarki, baina dokumentu batetik bestera ezberdintasunak nabari dira. Hau esan dezakegu honetaz, iritzi-emaileen aholkuz hainbat murriztu dugula originalarekin konparatuz maiuskulen erabilera. *Eukaristia*, adjektibo gisa ez datorrenean, beti letra larriz idazten dugu; gauza bera *Ebanjelioa* ere.

Apostolua, izen arrunt gisa datorrenean, letra xehez, baina San Paulo edo esan nahi duenean, letra larriz: *horrela, gutariko edonork esan dezake Apostoluarekin batera: Jainkoaren Semeak* “maite izan ninduen eta bere bizia nire alde eskaini zuen” (Ga 2, 20). *Artzaina*, Kristori nahiz Aita Santuari ez dagokienean, letra xehez. *Erreinua* ere letra xehez: *Jainkoaren erreinua / Kristoren erreinua / zeruelako erreinua. Jainkoaren Herria*, ordea, letra larriz, baita *Eliza* ere, fededunen elkartea esan nahi duenean. *Apezpiku, kardinal, patriarka* letra xehez erabiltzen ditugu, *errebela* ere bai...

Beste ñabardura ugari ager zitezkeen hemen, baina horrela ia amaigabe luzatzeko arriskua luke. Horregatik, irakurlea jakitun da, handi-handika, lan luze eta nekagarri honetan izan ditugun zailtasunez eta Vatikanoko II.ari euskarazko jantzia burutzeko egin dugun ahaleginaz. Bilboko gotzainak dioenez, “gure elizbarrutiei [euskal irakurle orori, gehituko genuke guk] zerbitzu bikaina eskainiko dien ustetan, irakurlearen esku uzten dugu.